



## **Sektore tradizionalak enpresa eta elkarten erronkei erantzuteko, artista eta sortzaileekin bi esku-hartze burutuko dira.**

Laugarren urtez jarraian, Urola Kostako Udal Elkarteak eskualdeko Kultura eta Sormen Industrien (aurrerantzean KSI) sektorea suspertzeko lanean dihardu.

Aurtengoan, joan zen urteko esperientziaren arrakasta kontuan hartuta, bestelako sektore ekonomikoetan eragin nahi da. Hain zuzen ere, KSI alorra eta sektore ekonomiko tradizionalak uztartuko dituen ekimenak garatuko dira.

### **Bi esku-hartze ez artistiko**

Ekimenak xede du Kultura eta Sormen Industriaz haratago, sektore ezberdinetan eragitea. Proiektuaren abiapuntu elikadura alorreko enpresek identifikatutako erronkak izango dira. Eta erronka horiei irtenbideak aurkituko zaizkie artista eta sortzaileen lanaz.

Gaur egungo testuinguru ekonomikoan, enpresa eta erakundeek beharrezkoak dituzte epe laburrera izan ditzaketen erronkei erantzun egoki bat emateko begirada eta jardunbide berriak. Etengabeko eraldaketa prozesuetan murgilduta, parez -pare dituzten erronkak gainditu ahal izateko, erakundeek ezinbesteko dituzte erantzun berritzaile, praktiko, baliagarri eta eraginkorrak.

Aldi berean, artista eta sortzaile askok dute beren dohain eta kompetentziak bestelako jardun-sektoreen zerbitzura jartzeko interesa. Eta gaitasuna. Jardun artistikoaz haratago, geroz eta gehiago dira esparru berrietara irekitzeko prest dauden sortzaileak. Gainera, berrikuntzaren bidea jorratuz, erakunde nahiz enpresen erronkei erantzun bat emateko profil egokia dute. Izan ere, sortzaile senaz gain, gehienek badute beste esparruren batean prestakuntza. Nazioarteko hainbat esperientzietan ikusienez, erakundeen arazo edota erronkei irtenbide praktiko- eraginkorrak emateko gaitasun handia izan ohi dute sortzaileek.

Hausnarketa horietatik abiatuta, ekimenaren baitan bi esku-hartze ez artistiko egingo dira. Esku-hartze bakoitza 2 hilabete inguruko prozesua izango da.

### **Helburuak**

Ondorengoak dira proiektuarekin erdietsi nahi diren helburuak:

- Berrikuntzaren alde, eskualdeko enpresetako/negoioetako barne-prozesuetan sormenari lekua egin, hibridazio metodologiak aplikatuz.
- KSI alorreko eragileei erremintak eskaini; beren jardun propioaz haratago, bestelako sektoreetan lan egiteko aukerak zabaltzeko.



## Prestakuntza

Jakina, esku-hartzeak behar bezala burutzeko, ezinbestekoa da prestakuntza. Horregatik, batetik halako dinamiketan eskarmentua duten artista eta sortzaileak hautatuko dira; eta bestetik, prestakuntza eskainiko zaie ekimenean parte hartzeko interesa duten eskualdeko artista eta sortzaileei, etorkizunean erakunde eta enpresetan esku-hartze ez artistikoak eraginkortasunez burutu ditzaten.

- **Nori zuzendua**

Edozein neurri eta sektoretako enpresa eta erakundetan esku-hartze ez artistikoak egiteko prestakuntza jasotzeko interesa izanik Urola Kosta eskualdean bizi edo eta lan egiten duten artista eta sortzaileak.

- **Metodologia**

Prestakuntzaren helburua da sortzaileei entrenamendua eskaintzea, beren lan aukerak zabaldu ditzaten ohiko lan-esparruetatik kanpo.

Prestakuntza eskainiko zaie gero eta ohikoagoak diren gaiak izanik, orain artean sortzaileen parte-hartzea eman ez den gaietan. Hala nola:

- Berrikuntzarako esku-hartze artistikoa
- Artea- Zientzia- Teknologia uztartzea
- Artea eta herritarren arteko prozesu berriak

**Atal teoriko bat eta praktiko bat izango ditu.** Atal teorikoa 4 orduko saio dinamikoa izango eta goizez eskainiko da. Saio horrek balioko du ulertzeko, besteak beste, esku-hartze hauen berezitasuna, beren ezaugarriak, lanerako teknikak...

Conexiones Improbables enpresako pertsona batek eta aurrez hibridazio egitasmoetan eskarmentua duen artista batek eskainiko dute atal teorikoa.

Prestakuntza teorikoaren ondoren, eskualdeko bi sortzaile hautatuko dira (egitasmo bakoitzeko bat); eta beren prestakuntzaren atal praktiko moduan egotzitako egitasmoaren esku-hartzean parte hartuko dute, artista mentoreen eskutik.

Guztira 5 saio aurreikusten dira, emaitzen aurkezpena barne.

Ez da inolako lan harremanik egongo Conexiones Improbables, esku-hartzea egingo zaion enpresa edo eta Urola Kostako Udal Elkartearekin.

Epealdiaren amaieran, jasotako prestakuntzaren ziurtagiria emango dute Urola Kostako Udal Elkarteak eta Conexiones Improbables enpresak.

- **Noiz:**

- Atal teorikoa: uztailak 8
- Atal praktikoak: 2020ko uztaila eta urria bitartean.



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

## Argibideak eta izen-ematea

Izen ematea epea irekita dago eta uztailaren 6a arte luzatuko da.

Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, idatzi iezaguzu e-maila bat edo jarri harremanetan telefono bidez:

Enpresentzako Zerbitzuak (Idoia Etxarri, Eli Uzkudun)

enpresa@urolakosta.eus

Tel. 943890808

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ekonomia Sustapenerako,  
Landa Ingurunerako eta  
Lurralde Ozeiko Departamentua



Diputación Foral  
de Gipuzkoa  
Departamento de Promoción  
Económica, Medio Rural  
y Desarrollo Territorial



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

Egitasmo hau kofinantzatuko da Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia sustapenerako, Landa ingurunerako eta lurralde orekarako Departamentuaren "Gipuzkoaren sustapen ekonomikoa bultzatzea eskualde ikuspuntuaren ekarpenaren bidez", 2019. urteko programaren bidez.